



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Imanol Baleztena Elizalde.
Leire Bazterrika Loiarte.
Francisco Michelena Celayeta.
Ezeziel Loiarte Santesteban.
José María Michelena Erasun.

2015eko irailaren 10ean, 19:00etan, ohiko biltzarrean elkartzen dira Zubietako Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. Ernesto Dominguez Olea —Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. M.J.J.k lizentzia eskatu du, *Errandonea* etxean daukan ostatuan zenbait obra egiteko. Eskaeran ez dira ongi zehazten egin nahi dituen lanak eta Hirigintzako prozedurari buruzko ordenantza berriaren 20. artikulua jartzen dituen agiriak falta dira (planoak, lanak deskribatzen dituen memoria eta aurrekontu xehakaturak). Aho batez erabaki da J. jaunari eskatzea aipatutako agiri guztiak aurkeztea, lizentzia ebatzi ahal izateko. Bitartean, etenda gelditzen da lizentzia eskaera ebatzete epea.

2. L.B.J.k lizentzia eskatu zuen 20 metro karratuko txabola eraikitzeke 4 poligonoko 342 partzelan (*Akarriain* parajea). 2015eko martxoaren 18ko Osoko Bilkuran lizentzia eman zitzaion, alderdi horretara doan bidea txukuntzeko, zabalera mantenduz eta Ingurugiroa Aztertzeke Atalak emandako txostenak jartzen dituen neurriak betetzeko baldintzapean. Lanak egin ditu eta Udalak egiaztatu nahi du lizentzia berri bat eman baino lehen ea baldintzak bete dituen. Ondorioz, aho batez erabaki da:

1. Bidean egindako lanei buruzko txostena eskatzea mendizainari. Bertan azaldu beharko du ea Ingurugiroa Aztertzeke Atalak emandako txostenak jartzen dituen neurriak bete dituen.

2. Eskatutako lizentzia berria ebatzete epea etenda uztea txosten hori egiten den bitartean.

3. T.O.F.k lizentzia eskatu du, 4 poligonoko 324 partzelara doan bidea garbitu eta txukuntzeko, 308 partzelatik hasita. Lanak lurzoru urbanizaezinean egin nahi direla kontutan hartuz, aho batez erabaki da aldeko txostena ematea eta eskaerari buruzko txostena eskatzea Nafarroako Gobernuari.

3. AUZOLANEN ORDENANTZA.



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

Nafarroako Toki Administrazioiko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua xedatutakoa kontutan hartuz, aho batez (arazko quoruma) erabaki da:

1. Hasiera batean onestea herritarren lana edo auzolana arautzen duen ordenantza.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, 30 laneguneko epean jendaurrean egoteko.

3. Aditzera ematea erabaki hau behin betikoa bilakatuko dela jendaurrean egon bizkitartean inork alegaziorik aurkezten ez badu.

4. HIRIGINTZAKO TRAMITAZIOEN TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.

Nafarroako Toki Administrazioiko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua xedatutakoa kontutan hartuz, aho batez (arazko quoruma) erabaki da:

1. Hasiera batean onestea hirigintzako tramitazioen tasak arautzen dituen ordenantza.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, 30 laneguneko epean jendaurrean egoteko.

3. Aditzera ematea erabaki hau behin betikoa bilakatuko dela jendaurrean egon bizkitartean inork alegaziorik aurkezten ez badu.

5. ZENBAIT ESKARI.

1. L. eta A.M.P.k *Garardi* eta *Urritizarreta* parajeetan 2 lursail inskribatu zituzten Jabetza Erregistroan (4 poligonoko 375 eta 358 partzelak). Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalak txostena eman du, lursail horiek komunalak direla adieraziz eta bere jabetza defendatzeko Udalak daukan betekizuna gogoratuz. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- M. andreei eskatzea eskriturak eta Jabetza Erregistroko inskripzioa zuzentzeko, aipatutako txostenak jartzen duen bezala.

- Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalari.

2. L.M.P.k *Arrotzubi*, *Amezti*a eta *Pagazelaieta* parajeetan 3 lursail inskribatu zituen Jabetza Erregistroan (2 poligonoko 408 partzela, 4 poligonoko 467 partzela eta 2 poligonoko 419 partzela). Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalak txostena eman du,



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

lursail horiek komunalak direla adieraziz eta bere jabetza defendatzeko Udalak daukan betekizuna gogoratu. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da:

- M. andreari eskatzea eskriturak eta Jabetza Erregistroko inskripzioa zuzentzeko, aipatutako txostenak jartzen duen bezala.

- Erabaki hau jakinaraztea Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalari.

3. J.A.L.M.k egur-lotea eskatu du epez-kanpo. Aho batez erabaki da egurra soberan ateratzen bada, lotea osoa edo erdia ematea.

6. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2015eko uztailaren 14koa, M.M. izendatu zuena baso-lanen obrako segurtasun eta osasuneko koordinatzailea; 2015eko uztailaren 15koa, M.J.ri lizentzia eman ziona, *Errandonea Ostatuko* fatxadan toldoa jartzeko; 2015eko uztailaren 16koa, hilabete bateko epea eman ziona L.M.M. eta G.M.ri, 1 poligonoko 6 partzelako bordara doazten bideak garbitzeko; 2015eko uztailaren 24koa, Zubietako Ehiztarien Elkarteari baimena eman ziona, ehiza postu baten ondoko arbolen adarrak mozteko *Aieleta* parajea; 2015eko uztailaren 24koa, E.U.ri lizentzia eman ziona, *Urtxipia etxean* pareta bat bota eta atearentzat tarte bat uzteko; 2015eko uztailaren 24koa, F.L.ri lizentzia eman ziona, *Martuzenea* etxeko gainekaldeko sarrerako pareta konpontzeko; 2015eko uztailaren 24koa, A. eta L.M.ri lizentzia eman ziona, *Sagardiko borda* erreteilatuta eta pareta bat konpontzeko; 2015eko abuztuaren 3koa, M.A.ri lizentzia eman ziona, *Idiarte etxeko* fatxadak pintatzeko; 2015eko abuztuaren 3koa, J.L.ri lizentzia eman ziona, Kanpo Santuan plaka jartzeko; 2015eko abuztuaren 5koa, *Errandonea Ostatua* ixteko ordutegia luzatu zuena kontzertu bat antolatuzeko abuztuaren 8an; 2015eko abuztuaren 10koa, *Errandonea Ostatua* ixteko ordutegia luzatu zuena herriko bestetarako; 2015eko abuztuaren 10koa, Herriko *Ostatua* ixteko ordutegia luzatu zuena herriko bestetarako; 2015eko abuztuaren 11koa, baso-lanak egiterakoan bota behar izan ziren arbolen kalte-ordainak ematea erabaki zuena; 2015eko abuztuaren 14koa, Alkatezaren eginkizunen eskuordetzea erabaki zuena; 2015eko irailaren 7koa, F.L.ri lizentzia eman ziona, *Martuzenea* etxeko portxea erreteiltzeko; 2015eko irailaren 7koa, A.L.ri lizentzia eman ziona, *Garaxenea* etxeko komunean obra txikiak egiteko (bainuontzia kendu eta dutxa jarri).

7. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Agiri hauen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: Kulturako Zuzendari Orokorrak eman dituen diru-laguntzak Errotarako (funtzionamendu eta inbertsiorako — 105E/2015 eta 106E/2015 Ebazpenak); Nafarroako Gobernura bidali diren baso-aprobetxamenduko baimen eskaerak — L.J., P.J.S. (3), J.M., J.H. eta T.O.k—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso-aprobetxamenduko baimenak — F.S. eta



ZUBIETAKO UDALA
(Nafarroa)
31746

M.J.ri—; herriko bestetan egindako salaketa, eragindako kalteen ondorioz; Belate eta Almandoz, Sunbilla eta Oiergiko tunelen segurtasunari buruzko txostena.

2. Alkateak hitza hartu du eta gai hauek aipatu ditu:

- Cederna Garalurreko Zuzendaria Batzordea (Agoitz, irailaren 9a). Leire Ortuoste, Doneztebeko zinegotzia, hautatua izan zen Malerrekako ordezkari bezala.

- “Metro Baserri” proiektuaren barruan, seinaleak egin eta jartzeko lanak martxan daude.

- Errota. Zubietako Udalak komenigarria ikusten du *Estalpea* izeneko lokala erabili ahal izateko aukera ematea Zubietako Errotara bisitan etortzen diren eskola taldeei, eguraldi txarra dagoenean edota komunak erabiltzen dituztenean. Hori dela eta, estalpeko giltza emanen zaio Errotan arduradun bati eta berriz errotazainari itzultzeko ardura hartuko du harek. Agiri bat prestatuko da hori kontrolatzeko.

- Errota. Produktu berriak jarri dira salgai dendan.

- Euskararen Eguna. Urriaren 10ean ospatuko da. Artisauei bazkaria emanen zaie *Herriko Ostatuan*.

- Malerreka Kantuz. Urriaren 3an izanen da Zubietan.

8. ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 20:30ak direnean, alkate jaunak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.